

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteazkena, 2011ko abenduaren 28a. VIII. urtea. 2.332. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

2012ko aurrekontua onartu dute, baina ez da EAJrekin akordiorik izan

Tolosako Udalak 21,4 milioi euroko aurrekontua izango du datorren urterako, udal gobernua osatzen duten Bilduk eta Aralarrek aldeko bozka eman eta gero

Oposizioarekin hitzarmena lortzeko hartuemanak izan dira, baina EAJk ez du sinatu, udal gobernua Tolosagasa enpresaren salmentari ez diolako baiezkorik eman **02**



E.MAZ

→ **Gabonetako X. Pilota Topaketa hasi da.** Intxurre pilota eskolak antolatzen duen topaketa-ko lehen partidak atzo jokatu zituzten. 92 pilotari ari dira parte hartzen, eta atzo Alegiako pilotalekuan elkartu ziren guztiak argazkia ateratzeko. Pilota partidak Alegia, Armezketeta, Altzo eta Ikaztegieta pilotalekuan jokatu dira. **05**

Villabonan eta Tolosan haur parkeak jarri dituzte

Eguberrietako jai egunak igarotzeko, gazteenek hamaika joko dituzte eskuragarri Bearzana frontoian eta Zerkausion **04**



Tolosako Zerkausion 2 eta 12 urte bitarteko haurrentzako jokoak daude. A.I.

Urteko gai nagusiak biltzen dituen 'Berrobi Berri' urtekaria jaso dute herritarrek

Hamabigarren alea banatu dute berrobitarren artean; hamar lagunek osatutako lantaldeak egin du, eta herrian nekazaritza ekologikoarekin eginiko lana nabarmendu dute **06**

Urte Zaharreko krosak izango dira Alegia, Berastegi, Lizartza, Tolosa eta Villabonan

Urtea bukatu eta berria hasteko, abenduaren 31n, kirola izango da nagusi Tolosaldean; San Silvestreko lasterketan parte hartzeko, aurretik eman daiteke izena **07**



FUNERARIA
VASCONGADA
EHORZKETAK

Kondeko aldepa. 5
www.funerariavascongada.com



Gertu...

TOLOSAKO
HILETA ZERBITZUAK
BEILATOKI BULABEA

24 H..

943 670 040



Bilduko eta Aralarreko zinegotziek aurrekontu proposamenari baiezkua eman zioten unea. I. GARCIA

Oposizioarekin akordiorik lortu gabe onartu dute 2012ko aurrekontua

Bilduko eta Aralarreko zinegotzien aldeko bozkekin aterata da aurrera; EAJk eta PSE-EEk kontra bozkatu dute

Imanol Garcia

Bilduko eta Aralarreko zinegotzien bozkekin onartu dute 2012ko Tolosaldeko Udaleko aurrekontua, 21,4 milioi eurokoa. EAJk eta PSE-EEk aurka bozkatu dute. Udal gobernu eta EAJ akordioa sinatzeko izan dira, baina azkenean EAJk ezezkoa eman du, «zenbait puntu nagusitan» ados ez egoteagatik.

Herenegun egindako osoko bilkuran jorratu zen aurrekontuen gaia. EAJk akordioari ezezkoa ematearen puntu nabarmena Tolosagasa enpresaren salmenta izan zen. Jeltzaleak saltzearen alde agertu ziren, eta hori akordioan ez egoteak atzera bota zituen baiezkua ematerako unean. Bildu eta Aralar alderdietatik erantzun zitzaizenez, «Tolosagasa enpresaren gaiak hausnarketa prozesu bat eskatzen du». Salmentarekin udala deskapitaliza-

tu egingo litzatekeela esan zuten, eta, salduz gero, lortutako diruarekin «beste proiektu batean inbertitzea» hobesten dutela.

Aurrekontuen gaiari sarrera eginez, Ibai Iriarte alkateak «egun bizi dugun egoera politikoa eta ekonomikoa» izan zituen hizpide. Horrez gain, Elosegi parkearen gaia nabarmendu zuen: «Karga handia da udalarentzat». Herenegun bertan sinatu zen hitzarmena parkearen jabeekin, eta lehenengo ordainketa, milioi batekoa, egin dagoela esan zuen. Datorren urtean beste hiru milioi ordaindu behar direla gogora ekarri zuen eta horrek eragina izango duela udalaren jardueran ekonomikoa.

«Gastu mailari eutsi»

Lore Agirre alkateordeak zehaztu zituen 2012ko aurrekontuen lehen nagusiak. Alde batetik, helburuetako bat «gastu mailari eustea» zela zehaztu zuen: «Inguruan murrizketak egiten ari dira, eta guk gastu sozialari eutsi egingo diogu. Gainera, udalek ekonomian traktore izan behar dute». Bestalde, euskara eta euskal kultura «indartzeko asmoa» dutela azaldu zuen. Horrez gain, beste

helburuetako bat «kalitatezko enplegua sortzea» dela esan zuen Agirrek: «Lan hitzarmena sinatu nahi da eta langileei KPIa igoko zaie». Elosegi parkea ere aipatu zuen alkateordeak eta gaiari «konponbidea» eman zaiola nabarmendu zuen.

Aralar alderdiko Inaki Irazabalbeitia zinegotziak «testuinguru ekonomiko berezia» bizi dela zioen eta horrek azpiegitura berriak egitea baldintzatzen duela. Horrez gain, batzorde buru den Hizkuntza Politika eta Hezkuntza saila «indartuta» aterata esan zuen, eta «normalizazioan urratsak» egingo direla zehaztu zuen.

Oposizioaren kritikak

EAJko Jokin Azkue zinegotziak osoko bilkurarako prestatutako idatzia irakurri zuen, udal gobernuak aurkeztutako aurrekontuari errepaso eginez, eta aurrera begira herrian egin beharko liratekeen proiektuak zerrindatuz. EAJren arabera, udal gobernuak aurkeztutako aurrekontuak «ez daude pentsatuak krisialdiari aurre egiteko. Ez dago ohiko ekin-tzetatik aparte inolako berriarazko proposamenik enplegua sortzeko, ekonomia pizteko edo gizarte ongizatea sustatzeko».

Bestalde, Bilduk eta Aralarrek oposizioan dauden alderdiekiko «jarrera aldatu dutela» esan zuten jeltzaleek: «Aurrekontuen eztabaidan, adostutakoak adostuta eta desadostasunak desadostasun, jarrera irekia azaldu dute, hau guztiaren eztabaidan. Benetan argigarria eta poztekoa azaldu berri den EAJrekiko jarrera». Aurrera begira «eskuak luzatuko» dituztela gaineratu zuten, «egoera ekonomikoa gainditzeko».

PSE-EEko Jose Ignacio Asen-

sio zinegotziak kontrako bozka egitearen arrazoia «inbertsio faltan» oinarritu zuen: «Krisian gauden eta hori nabaritu egiten da. Ados nago gastu soziala mantendu egin behar dela esatean, baina inbertsiorik ez da azaltzen aurrekontuan, ez dago proiektu berri-rik».

Udal langileak

Osoko bilkurako beste gai bat langilei buruzkoa izan zen. Aurrekontuen eztabaidan ere agertu zen gaia. Udal gobernuak proposatutakoaren arabera, ingurumen teknikaria eta parekidetasun teknikaria udal lantaldean izango dira, «lanpostu estrukturalak» direlako. Udal gobernuaren aholkularia lanaldi erditik osora pasatuko dute. Bestalde, Kulturako koordinatzaileari, udaltzain buruari eta Tolosa Lotzenerako langileari ez zaie berrituko. EAJ eta PSE-EE ez ziren ados azaldu aldatetekin eta aurka bozkatu zuten.

Arriarango gasolindegia ondoan aurreikusita dauden birlubildunari eta zubiri buruzko hitzarmena ere osoko bilkuraren gai zerrendan zegoen. Ibai Iriartek azaldu zuenez, «Foru Aldundiak hitzarmena suntsiarazteko eskaria egin du, aurrekontuaren erabiliko proiektu horretarako gordeta zuen dirua eta hurrengo urtean erabili ahal izateko aurrekontutik kendu behar du. Formalismo kontua da eta hurrengo hiru hilabeteetan berriro sinatuko da hitzarmena». Udal gobernuarentzat «lehentasunezko proiektua» dela gaineratu zuen alkateak. Bere aldetik, EAJk kontrako bozka eman zuen gai horretan, proiektu «oso estrategikoa» zela eta «hitzarmena berritzea» data berririk ez zegoela» esanez. PSE-EE abstenitu egin zen.

Hiru musika talde tolosar, Bonberenean gaur izango den kontzertuan

Glaukoma Sound System, Dolce Tangana eta Atila y los Unos taldeak entzungai, 22:30etik aurrera

Erredakzioa

Glaukoma Sound System, Dolce Tangana eta Atila y los Unos taldeak gaur kontzertua emango dute, 22:30etik aurrera, Bonberenean. Emanaldia, Bonberenean 14. urtemugako ekitaldien barruan antolatuta dute.

Hiru taldeak Tolosakoak dira. Glaukomakoek bere reggae doinu dantzagarriak eramango dituzte. Dolce Tangana Bonberenean bertako jendea da, «zazpi gazte mundua jateko asmotan». Ska doinuak joko dituzte. Bukatzeko, Atila y los Unos taldearen rock musika entzun ahal izango dute kontzertura joaten direnek.

→ Laburrak

Gazte Topagunean filma ikusgai, gaur arratsaldean

KULTURA › Eguberrietako egitarauaren barnean, film bat ikusteko aukera izango dute gaur, Gazte Topagunean herriko gazteek. 17:00etan hasiko da emanaldia.

Txotxongiloak egiten ikasteko tailerra, Topic-en

KULTURA › Topic Txotxongiloen Nazioarteko Zentroan txotxongiloak egiten ikasteko tailerra antolatuta dute egunotarako. Txotxongilari paregabea izango naiz izeneko tailerra 8 urtetik gorako gazteetoei zuzendua dago, eta hilaren 30era bitarte emango dute, goizetan, 10:00etatik 13:00etara. Topic zentroan bertan, edo 943 65 04 14 telefono zenbakian eman ahalko da izena.

Atsedena taldearekin Astelenitan dantzan

AISIA › Atsedena aisialdi talde-tik adierazi dutenez, Inauterietako Astelenitan eurekin konpartsan ateratzeko egunotan eman behar da izena. Horretarako, 65087 97 04 telefono zenbakira deitu beharko dute interesatuek. Lehen entsegua etzi izango da, 16:00etan, Santa Maria plazan.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Iker Galarza pailazo sentitzen da guztiaren gainetik. Hamalau urte daramatza Poxpoloren sudur gorria jantzita, ikusleei barrea eragiten. Gaur, ametsak sortzeko gai ere izango da bere lagunekin, Leidorren.

Gezur txikiekin ametsak sortuz

Itzea Urkizu

Duela hamalau urte jantzi zuen Iker Galarzak (Amezketeta, 1977) lehen aldiz, Poxpoloren ileordea. Hamabi urte daramatza plazaz plaza haur eta helduei irribareara eragiten, eta gaur emanaldi oso berezia eskainiko du, «sekula baino konpainia gehiagorekin», Tolosako Leidor aretoan.

«Emanaldi zoragarria izango da, musikarekin, dantzarekin, magia pixka batekin... Eta zalan-tzarrik gabe, barre egingo dute bertaraten direnek», azaldu du Iker Galarzak. Udan herriz herri eta oholtzaz oholta ibiltzen direnez, ikusle askok zenbait gauza ezagutuko dituztela aitortu du, baina «ezustekoak ere izango dira. Ez dugu ezer aurreratu nahi, ordea, bestela ezusteko izateari utziko dio».

Poxpolo eta konpainia taldearentzat, emanaldi berezia izaten da Eguberrietan egiten dutena. «Urtean zehar beste kontu batzuekin aritzen baldin bagara ere, norbaiti zerbait bururatzeko zaiotzen, Gabonetara begira jartzen gara segituan, uztaila edo maiatza izan arren», dio Iker Galarzak.

Mokoloren grinari eutsiz

Gaurko emanaldiak, era berean, Mokolo zenagatik du halako berezitasuna: «Mokolori ilusiorik handiena sortzen zion emanaldia izaten zen, Eguberriak asko gustatzen baitzitzaizkion. Guk askotan esaten genion horrenbesteko lanik ez hartzeko, emanaldi bakar-rerako, baina hala ere, gogo handia jartzen zuen beti». Mokolorengandik ikasi zuten gauzetako bat izan zela azpimarratu du Poxpolok, eta konturatu direla, lan hori egiteak benetan merezi duela: «Mokolori gustatzen zitzaion,

eta guk, bera falta denez geroztik, are ilusio handiagoz egiten dugun zerbait da».

Gainera, ikusleek ere egindako lana eskertzen dutela dio, eta hori sari handia dela: «Jendeak hanka sartzeak eta barkatzen dizkigu, ulertzen baitute gure ahalegina zenbatekoa den. Badakite pailazo izanda ezin dela aberastu, baina lan honek asebetetzen gaitu, bai pertsona bezala, eta baita talde bezala ere».

Gaur, bi saio eskainiko dituzte Leidor aretoan; 16:30ean izango da bata, eta 19:00etan bestea. Emanaldia gogo biziz prestatu duten arren, izen berezirik ez diote jarri. «Jende askok galdetzen digu kalean, izenbururik pentsatu ote dugun emanaldiarentzat, baina ez da hala». Eguberrietarako bereziki prestatu saioa izango da gaurkoa, eta ez dute plaza guztietan errepikatuko. Hala ere, taldekideen artean lelo politenak aukeratzeko aritu dira. «Lehenengo batean taldekide batek hala esan zuen, egokia litzatekeela *Ametsetan* izena emanaldiarentzat», dio Galarzak.

Gezur txikien xarma

«Guk, emanaldietan amets egiteko aukera eskaintzen diegu ikusleei, eta hori da gure lan egiteko modua: gezur txikiak erabiltzen ditugu fantasia sortzeko batzuetan, eta egia kontatzeko beste batzuetan».

Bide beretik, Iker Galarzak, Poxpolo eta konpainia taldearen helburu nagusiak entrentenitza, barrea eragitea eta «ahal bada, ikusleak hunkitzea» direla nabarmendu du: «Horixe da gure lana, eta guk egiten dakiguna. Dena ez dela sinetsi behar helarazten diegu ikusleei, baina era berean, norberak nahi duen guztia amets dezakeela».

Haurrei eta helduei begira

Poxpolo eta Mokolo elkarrekin emanaldiak egiten hasi zirenez geroztik, familia osoari begirako saioak prestatzen aritu izan direla azaldu du Galarzak.

Gurasoei begirako gauzak prestatzeak eginahal bikoitza eskatzen duela dio, eta batzuetan «oreka aurkitzea zaila izaten da».

Sudur gorria bihotzean

Iker Galarza «inertziatz» hasi zen pailazoen munduan, gustuko zuelako. Aktore izan nahi duen jendea bada, gauza eta pertsonaia desberdinen azalean sartu nahi



«Batzuetan gezur txikiak erabiltzen ditugu fantasia sortzeko»

«Pailazoak gara goizean jaikitzen garenetik, gauean oheratzen garen arte»

«Mokolori ilusiorik handiena sortzen zion emanaldia izaten zen Gabonetakoa»

IKER GALARZA
Poxpolo pailazoa

izaten duena. Poxpolok, ordea, «pailazoa zerbait desberdina dela» uste du: «Pailazo izatea aktore askori gustatzen ez zaien zerbait da, beharbada, beldurra ematen duelako batzuetan txiki sentitu behar hori. Egia esan, ez dakit nola azaldu pailazo izatea zer den, oso zaila da».

Bestela ere aktore lanetan aritzen da Galarza, baina gauza batek bestearekin zerikusirik ez duela dio: «Gure inguruan amets



Beste hainbat lagunekin batera aritzen da Poxpolo, oholtzan. HITZA

bat sortzen dugu, eta oso gutxik ute hori sortu ahal izateko zortea; pailazoek eta umeekin lan egiten dutenek ondo baino hobeto dakite hori zer den». Sarri esan ohi den bezala, pailazoa jaio egiten dela helarazi du Poxpolok: «Ni pailazo sentitzen naiz ezer baino lehen. Lan egin dezaket telebistan; besteek trenak egiten, irrastian edo okindegian egingo dute lan, baina lehenengo pailazoak gara, goizean jaikitzen garenetik, gauean oheratzen garen arte; eta lo gaudenean ere, pailazo izaten jarraitzen dugu».

Lagun taldea lanean

Poxpolo eta konpainia lan taldean, normalean zazpi lagun aritzen diren arren, gaurko eman-

dirako beste hainbat lagun elkar-tu dira eurekin: «Gure izenak arropak eta dekoratuak josten, Udaberriko lagunak, kuadrilako lagunak, koinatuak trasteekin laguntzen, emazteak, neska lagunak, eta abar izango dira gurekin. Hoge lagunetik gora ariko gara Leidorren, eta horregatik diot sekula baino konpainia handiagoa izango duela Poxpolok gaur».

Emanaldiak prestatzeko astero-astero biltzen den lantaldearentzat, hitz ederrak besterik ez ditu pailazoak: «Lan talde zoragarria dugu, eta lagun taldea gara. Astero elkartzen gara, eta guztiok egiten ditugu gure ekarpenak, abestiak, esketxak eta guttia, erabakitzeko».

• tolosa@hitza.info



Egin HITZAren harpidedun

abenduaren 31 baino lehen, eta jaso

MAHALA ekoizlearen produktuak hau

OPARI

Bertako informazioari, bertako produktuak



hitza info

Harremanetarako:
902-82 02 01
harpidetza@hitza.info

Tolosan eta Villabonan haurrek badute eurentzako txokoa

Gabonetako haur parkeetan jolasek eta ikuskizunek bat egiten dute txikienentzako prestaturik dauden eskulaneekin



Asier Imaz

Tolosan eta Villabonan haur parkeak zabaldu dituzte Gabon hauetarako, Zerkausian eta Bearzana frontoian.

Tolosan, 2-12 urte bitarteko haurrentzat hamaika jolas eta ikuskizun antolatu dituzte. Hilaren 30a bitarte, ikuskizunak egunero izango dira, 12:00etan. 19:00etan, aldiz, Euskaraokea eta Diskoteka egongo dira Zerkausian.

Villabonako eskaintza zabaldu

Oria Merkatari elkartearen eskutik etorri da. Bearzana frontoian kokatu dute I. Gabon Parkea, baina ez dago egunero zabalik, hilaren 30ean, 31n eta urtarrilaren 5ean, baizik. 2-9 urte bitarteko haurrek dute euren txokoa bertan. Haurrak begiraleen esku geditzen diren bitartean, gurasoek herriko komertzioetan erosketak egiteko aukera izango dute, izan ere, herriko merkatariek egunero 50 euroko hiru erosketa txeke zozketatuko dituzte, Gabon parkean bertan.



Goian, Bearzana frontoiko irudiak. Beheran, Zerkausian aurkitzen den haur parkea. A. IMAZ

↓ Egitarauak

TOLOSA

■ Gaur, hilak 28.

12:00etan. Tatxin eta Tatxan magoak.

19:00etan. Euskaraokea/Diskoteka.

■ Bihar, hilak 29.

12:00etan. Ipuin kontalaria.

19:00etan. Euskaraokea/Diskoteka.

■ Etzi, hilak 30.

12:00etan. Zirriren jolasak.

19:00etan. Euskaraokea/Diskoteka.

VILLABONA

■ Etzi, hilak 30.

16:30-18:00 edo 18:00-19:30.

Tailerrak, jolasak, eskulanak, puzgarriak, merienda...

■ Hilak 31 eta urtarrilak 5.

10:00-11:30 edo 11:30-13:00.

Tailerrak, jolasak, eskulanak, puzgarriak, merienda...



harpidedun izateak badu saria

zozketa

1 Mahala sorta

Bi sorta

Mahala Berri baserria
Leaburu
Tel.: 943-67 07 24



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 51

2 Gorrotxategi sorta

Hiru turroiko bost sorta

Plaza Zaharra, 7 • Tolosa
Tel.: 943-67 07 27 / 943-65 12 26
www.gorrotxategi.com



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 52

3 Tolosako babarrunak

Hamar babarrun poltsa Eusko labelarekin

San Esteban, 29 • Tolosa
Tel.: 943-65 02 53



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 53

4 Laskorain Ikastolako Abesbatzaren CD-DVDA

Hamar ale

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 54



5 Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaldean

Bi liburu

HITZako bulegoa
Araba etorbidea, 5 behea
Tel.: 943 65 56 95

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 55



6 Lagu Aro GBC

Sarrera pareia

Urtarrilak 4 • Asteazkena
20:00etan
Donostiako Iunben

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 56



LAGUN ARO GBC
Cajasol Banca Civica
saskibaloia partida

Parte hartzeko deitu edo idatzi: 902-82 02 40 / txokoa@hitza.info [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zeineskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adierariz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegun goizean, nahi duzun orduan. Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.

Gabonetako Topaketan 92 pilotari zuriz jantzi dira

Gaur jokatu dituzte azken sailkapen partidak; finalekoak etzi izango dira 16:00etan Alegiako frontoian

Eneritz Maiz

Hasi da X. Gabonetako Pilota Topaketa, eta 92 pilotarik zuriz jantzita ekin diote. Neska eta mutil, atzo jokatu zituzten lehen partidak, eta azken sailkapen partidak gaur jokatu dituzte. Alegia, Altzo, Amezketa eta Ikaztegiatako frontoietan banatu dituzte partidak, adinaren arabera. Intxurre pilota eskolak antolatu du, eta finaleko partidak, hilaren 30ean, ostiralean jokatu dituzte. Aurtun, Alegiako frontoian izango dira, eta 16:00etan hasiko dira.

Topaketa hauetan, pilota eskolaz kanpoko ikasleek ere izena

eman dezakete, eta antolatzaileek egin dituzte bikoteak. Orekatuak izaten saiatu dira.

Benjamin-aurrekoak, 2004 eta 2005 urteetan jaiok; benjaminak, 2002 eta 2003 urteetakoak; alebinak, 2000 eta 2001 urteetan jaiok; infantilak, 1998 eta 1999 urteetan jaiok eta kadeteak 1996 eta 1997 urteetakoak dira. Pilotari guztiek pilota goxoein jokatu dituzte partidak, eta ez dute esku-babesik behar.

Atzo, Gabonetako Topaketei hasiera eman aurretik, ordea, parte hartzaile guztiekin argazkia atera zuten. Familiako argazkiarekin, iaz bezala, egutegia egingo dute.

Maila bakoitzeko lehen bi sailkatuz gain, parte hartu duten pilotari guztiek izango dute saria, eta merienda, ostiralean. Pilotari profesionalak eta afizionatuak izango dira gaztetxoei sariak banatzen.

↓ Gaurko partidak

ALEGIA

- **Benjamin aurrekoak.** 8 partida jokatu dira, 16:00etatik aurrera.
- **Kadeteak.** 16:00etan hasi, eta bi partida jokatu dituzte.

AMEZKETA

- **Benjaminak.** 17:00etan hasiko dira partidak, eta bost izango dira.

ALTZO

- **Alebinak.** 16:00etan hasita hiru partida jokatu dituzte.

IKAZTEGIETA

- **Infantilak.** Hiru partida jokatu dituzte, 16:00etan hasita.



Benjamin aurrekoek eta kadeteek Alegian jokatu zituzten partidak. E. MAIZ

Auzoko argazki zaharrak bildu dituzte erakusketa jartzeko

Intxaur Auzo Elkarateak argazki zaharren erakusketa prestatu du; auzotar guztientzat irekia egongo da

E. Maiz Aldaba

Aldabako Intxaur Auzo Elkarateak argazki erakusketa prestatu du, agenda kulturalarekin jarraitzeko. Eguberri egun hauetan, eta urtarrilean zehar, Aldabako argazki zaharren erakusketa egongo da ikusgai. Elkarateko liburategian jarri dute.

Auzotarrei esker argazki mordea bildu dute: Aldabako auzo guinea berreraiki zenekoak, berre-raiki aurrekoak, bide berria egin zutenekoak, eskolakoak, ... era guztietakoak bildu dituzte.

Auzotar guztiak gonbidatu nahitu dituzte prestatu duten era



Era askotako argazkiak ikusteko aukera izango da erakusketan. HITZA

kusketa ikustera. Bertan auzotar asko agertzen dira.

Bestalde, argazki horietako batzuk, 2012. urteko egutegia egiteko erabili dituzte. Auzotarrentzat

egin dituzte, eta egutegiak elkarrean bertan egongo dira. Interesatuak Jose Ramon edo Xabirekin jarri beharko dute harremanetan.

→ Laburrak

Lain taldearen kontzertu akustikoa, bihar

VILLABONA › Oinkari Dantza Taldeak antolatuta, Villabona-ko Kiroldegiko tabernan Lain taldearen kontzertu akustikoa izango da. 22:00etan hasiko da, eta sarrera doakoa da. Ostiralean, Irrintzi elkartaren laguntzarekin afari herrikoia egingo dute. Izena emateko, 660 139 380 telefonora deitu behar da.

Etzi 'Ametsen fabrika' antzerkia izango da

ABALTZISKETA › Guraso Elkarateak antolatuta, etzi, hilak 30, *Ametsen fabrika* izeneko antzerkia izango da, Abaltzisketako kultur etxean. 17:00etan hasiko da. Antzezlan, 2-12 urte arteko haurrei zuzendua dago. Antzerki emanaldiaren aurretik, 16:00etan, gerturatzen diren guztientzat merienda emango dute Larrunari Elkartean.

Urteari hasiera emateko Loatzora igoko dira

AMASA-VILLABONA › Aizkardi Mendi Taldeak, urtero bezala, urtea Loatzora mendira egiten duten irteerarekin hasiko du. 2012. urtea ondo hasteko, igandean, 08:30ean Olaederra kiroldegian elkartuko dira. Loatzora mendira lagun giroan joan nahi duenak, kiroldegira gerturatzea nahikoa izango du.

Ohiko osoko bilkura egingo dute, bihar, 14:30ean

AMEZKETA › Bihar, hilak 29, 14:30ean ohiko osoko bilkura egingo dute Amezketa udal-etxean. Bertan, besteak beste, ondoren zehazten diren gaiak aztertuko dira: 2011ko urriaren 27an eginiko ohiko bilkuraren akta agiria onartzea; alkatetzaren ebazpenen berri ematea; euskal presoen eskubideen aldeko mozioa; batzordeen informazioa ematea eta galdera eta erreguak egiteko aukera izango da. Herritarrek parte hartzeko aukera izango dute.

Erausketak zerbaitzu berria martxan!
Erausketak, ibe proposatekin

PLAN PREVER PEUGEOT 2.600€ ZURE KOTXE ZAHARRARENGATIK

P-5008

TOLOSA MOTOR, S.A. PEUGEOT KONTZESIONARIOA
San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA • Tel.: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938 • tolosa@tolosa.redpeugeot.com

Tolosa



JANARI BILKETA «BIKAINA»

Beste urte batez, Hirukide ikastetxean Eguberri aurreko bi asteetan janari bilketa egin aritu dira. Eskolan bertan nahiz Tolosako supermerkatuetan burutu dute ekimena, eta emaitza «bikaina» izan dela adierazi dute arduradunek. Horregatik, Hirukidek parte hartu duten guztiak eskerrak eman nahi dizkie. «Zuei esker laguntza paregabea eskaini diegu Caritas elkarteari eta Abegi aterpetxeari. Mila esker, une zail hauetan, tolosarrok elkartasuna erakustea gaitik». HITZA

Berastegi



ETIOPIA LAGUNTZEKO EKIMENA

Muñagorri eskolako ingurumen batzordeak antolatuta, Elkartasun Azoka egin berri dute Berastegin. Antolatzaileak «oso gustura» daude izan duen harrerakin. «Oso pozik gaude, ekimenak zituen bi helburuak bete egin baitira». Azokaren lehen helburua erabilerarik ez zuen materialari bererabilpena ematea zen, eta bigarren helburua, elkartasun izaera izatea. Herritarrek utzitako materialarekin 400 euro inguru bildu dute, eta hori aurreko urteetan bezala, Etiopiako Wukro herrira bidaliko dute. HITZA

→ Laburrak

Leitzako udalbatzaren osoko bilkura, etzi

LEITZA › Ohiko osoko bilkura egingo du etzi Leitzako Udalbatzak. Udaletxeko batzar aretoan izango da, 21:00etan hasita. Ondorengo gaiak eztabaidatuko dituzte: alkatearen dedikazioa eta ordainsaria onartzea; 2012. urteko aurrekontu orokorra eta exekuzio oinarriak onartzea; 2012 urteko plantila organikoa onartzea; kale eta udal eraikinen garbiketarako kontratu urtebete luzatzea; udal kiroldegia, pilotalekua eta igerilekuak kudeatzeko kontratua urte bat luzatzea eta Jose Antonio Olaetxearen zinegotzi karguari uko egitearen jakinarazpena, besteak beste.

Asis sarearen otoitzaldi bilkurak izango dira bihar

LEITZA-TOLOSA › Bihar egingo dituzte Asis sarearen otoitzaldi bilkurak Tolosaldean eta Leitzaldean. Tolosaldearen kasuan, Tolosako Klarisen komentuan egingo dute bilkura, 19:30ean hasita. Leitzaldearen kasuan, berriz, Jasokundeko Ama Birjinaren Elizan izango da 19:30ean. Informazio gehiago nahi duenak 646 214 896 telefono zenbakira deitu ahalko du, mezua bidali asissarea@arantzazu.org helbide elektronikora edo www.asissarea.org web orria bisitatu.

Kalean da urtearen errepasua egiten duen herriko aldizkaria

‘Berrobi Berri’ urtekariaren hamabigarren alea jaso dute herritarrek, euren etxeetan

Iñigo Terradillos Berrobi

Urtearen ondarrean gauden honetan, atzera begira jarri, eta urteak eman duena gogoratzea ohikoa izaten da. Asko dira, halaber, lan hori errazten duten argitalpenak, izan ere, herrietako, eskualdeetako, lurraldeetako edota gai jakin bateko urtekari ugari kale-ratzen dira garai hauetan. Horietako bat da *Berrobi Berri*. Bere hamabigarren alea jaso dute Berrobiko herritarrek, eta bertan herrian aurten gertatutakoak irakurri ahalko dituzte.

Hamar lagunek osaturiko lantaldeak egiten du aldizkaria. Aurten goan herriko bi baserrian nekazaritza ekologikoa landuz egiten duten lana nabarmendu dute. Era berean, natur baldiabiak kontuan hartzen dituen Telleria nekazalturismoaren inguruko xehetasunak ere irakur daitezke.

Berrobin bada txakolina egiten duen baserri bat, eta bertako jabeari elkarrizketa egin diote. Hala, ber, 40 urteren ostean bere atea itxi dituen herriko dendako arduradunen hitzak ere jaso dituzte. Udaleko bi udal taldeen proiektuak



Hamabigarren 'Berrobi Berri' aldizkariaren azala. HITZA

tuak ezagutu ditzake irakurleak, urteko albisteak eta argazkiak ikusi, eta jaiotzak eta heriotzak gogoratu.

Gehigarri berezia

Bestalde, *Berrobi Berri* urtekariaren hamabigarren aleak gehigarri berezia gordetzen du barrualdean. *Berrobiko memoria historikoa* izenburupean, gerra ondorengo egoera gogorarazi nahi izan dute hainbat lekukori eginitu elkarrizketen eta *ahotsak.com* ataritik jasotako informazioaren bidez.

Atentatua jasan zuenaren itxura egin zuen guardia zibilaren epaiketa, datorren hilean

Urtarrilaren 11n hasiko da Iruñeko Zigor Epategiko 3. zenbakian; 2009. urteko azaroko da gertakaria

I. Terradillos Leitza

2012ko urtarrilaren 11n hasiko da, Leitzaan atentatu bat jasan zuenaren itxura egin zuen guardia zibilaren aurkako epaiketa. Hain zuzen ere, Iruñeko Zigor Epategiaren 3. zenbakian epaituko dute.

2009. urteko azarokoaren 29ko gauean jaso zen gertakaria. S.M.O. 32 urteko guardia zibila bala batekin zauritu zen besoan, eta bere kideei esan zien ETaren erasoak jasan zuela. Albiste agentziek segurtasun indarretako iturriak aipatuz, ETaren atentatu bati egotzi zioten erasoak hasieran. Baina atentatuaren hipotesiak indarra galdu zuen ordu batzuren buruan, eta segurtasun indarretako iturriek beraiek zioten zantzu guztiak aditzera ematen zutela zauritutako guardia zibila sortutako «muntatze» bat izan zela, berak bere burua zauritu. Delitu itxurak egin eta kale istiluak eragiteagatik inputatu zuten epaileak.

Urte zaharrari agur korrika eginez esango diote eskualdeko sei herritan

Alegian, Berastegin, Lizartzan, Tolosan eta Villabona-Zizurkilen lasterketak antolatatu dituzte hilaren 31n

Asier Imaz

Urteko azken egunean korri egin nahi duenak Alegian, Berastegin, Lizartzan, Tolosan eta Villabona-Zizurkilen edukiko du aukera. Urte zaharrako krosa edo San Silbestre lasterketak antolatatu dituzte herri hauetan, eta parte hartzeo aukerak zabalik jarraitzen du oraindik.

Alegian, kultur eta kirol etxean eman daiteke izena: gaur edo larunbatean bertan, 15:00etatik 16:00etara. Izen ematea bi eurokoa da. II. San Silbestrean bi lasterketa egongo dira. 6-12 urte bitarteko haurrek 930 metroko ibilbidea egin beharko dute, eta zaharragoek 4.500 metrokoa.

Berastegin, Urepel elkarsteak antolatzen du lasterketa. Haurrek 3 euro ordaindu behar dituz-

te (egunean bertan 5 euro) eta helduek 4 euro (egunean bertan 6 euro).

Lizartzan, Otsabio kirol elkarsteak antolatzen du proba. Gazteenek plazari bi itzuli emango dizkiote, eta 10 urtetik gorakoek 4 kilometro inguruko ibilbidea egin beharko dute. Izena egunean bertan eman behar da.

Tolosan, XIV. Elkartasun Krosoa Zerkausitik abiatuko da. Helduek izena, 6 euroren truke, aldeztu aurretik eman dezakete Aralar Kirolak dendan, eta horretarako azken eguna hilaren 29a da. Egunean bertan apuntatzen denak 10 euro ordaindu beharko ditu.

Zunbeltz eta Urkamendi elkarsteak antolatzen dute Villabona eta Zizurkilen arteko XXVIII. Urte Zaharreko Lasterketa. Izen ematea Zunbeltz elkartean izango da egunean bertan, goizez nahiz arratsalde. Aurrez, www.herrikrossa.com web orrian eman daitake izena. Izen ematea dohainik izango da. Benjaminek gutxienez 800 metroko ibilbidea egingo dute, eta alebinek 1,6 kilometrokoa. Infantilek 2,15 kilome-

tro neurtzen dituen ibilbide handiari itzuli bat emango diote; kadeetiek bi eta hortik gorakoek hiru, hau da, 6,5 kilometro eginaz.

Sariak

Berastegin, Alegian, Tolosan eta Villabona-Zizurkilen sari banaketa ekitaldiak egingo dituzte lasterketaren amaieran. Parte hartzaileen artean opariak ere banatuko dituzte. Lizartzaren kasuan, korrikalari guztien saria txokolate beroa izango da.



Alegian iaz antolatatu zuten lehen San Silbestre Krosoa. HITZA

↓ Urte zaharreko krosa

ALEGIA

■ **16:00.** Bi lasterketa izango dira. 6-12 urte bitartekoak aterako dira lehenengo. Ondoren 12 urtetik aurrerakoak aterako dira.

BERASTEGI

■ **18:00.** 12 urte artekoak aterako dira.

■ **Jarraian.** 12 urtetik gorakoek parte hartuko dute.

LIZARTZA

■ **17:00.** 10 urte artekoak aterako dira lehenbizi, eta plazari bi itzuli emango dizkiote. Ondoren, 10 urtetik gorakoek txanda izango da; hauek herrian sei itzuli emango dituzte.

TOLOSA

■ **15:30.** Benjaminak, 700m.
■ **16:00.** Alebinak, 1.600m.

■ **16:30.** Infantilak (2.900m) eta helduak (5.050m). Ordu honetan hasiko dira sari banaketa ekitaldiarekin.

VILLABONA-ZIZURKIL

■ **16:00.** Benjaminak.
■ **16:10.** Alebinak.
■ **16:28.** Infantilak eta kadeteak.
■ **16:30.** Jubenilak, proba nagusia eta beteranoak edo 35 urtetik gorakoak.

Errege kabalgaririk ez egitea erabaki dute Bilduko alkateak

Erredakzioa

Tolosaldeko eta Leitzaldeko Bilduk ez du monarkiarekin bat eginen, eta hori argi utzi nahi izan du: Errege Egunean ez dute kabalgaririk egingo alkatetza duten herrietan. Bai Euskal Herriari ekimena ere alde agertu da, geurea Olentzero dela gogoratuz. Erregeren bat aukeratzekotan Eneko Aritzarekin gelditzen direla gaineratu dute herri ekimenetik.

Kritika gogorrenak

Tolosaldeko eta Leitzaldeko alderdi desberdinen ordezkari guztiak ez datoz bat erabakiarekin. Orexako PSE-EEren zinegotziak azaldu duenez, eurek monarkia sozialista defendatzen dute, beraz, erregeen desfilearen aldekoak dira.

PP ez da atzean gelditu, eta Regina Otaola alkate egon zen garaieran Lizartzan sortu zuten bulegotik, gogor salatu dute Bildu-

ko alkateek hartutako erabakia. Errege Eguneko ilegalizazioa ilegalizatzea eskatu dute, eta Regina Otaolarekin horrelakorik ez zela gertatuko gehitu dute.

Gogorren hitz egin dutenak Leitzako Derecha Navarra y Española alderdiko kideak izan dira. Erabakia bertan behera ez baldin bada gelditzen, DNEko kideek, erregez jantzi eta herri guztietan aurkezteko asmoa azaldu dute.



Bai Euskal Herriaririk ekimena babesteko atera duen irudia. HITZA

Hilberriak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



**FELIX LAZKANO
ETXEZARRETA**



(Mariano Lazkano Arana alkatearen aita)



Doluminak Belauntzako Udalaren partetik.

BELAUNTZAN, 2011ko abenduaren 28a



14°
7°

GOIZA	LAINOTUTA
ARRATSALDEA	LAINOTUTA
BEROENA	11°
HOTZENA	8°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza. Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info.
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.M.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Hernialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeako, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

DEIALDIAK

- **Tolosa.** *Esna-bidean* erakusketaren barruan gaur, edoskitze saioa 18:00etan Aranburun.
- **Ibarra.** *Miru aintzirako sorgina* emanaldia Sointek taldearen eskutik gaur, 11:00etan. 2 eta 7 urte bitarteko haurrei zuzendutako emanaldia izango da.
- **Irura.** Gaur Gaztelekuan Inuzente eguna ospatuko dute, 17:00etatik 19:00etara. Olen-tzerok ekarritako opariak irekiko dituzte, eta 17:30etik aurrera haurrentzako filma ere eskainiko dute kulturunean.
- **Leitza.** *Comprár, Tirar, comprár* dokumentala gaur, 19:00etan Gazteteanean.
- **Tolosa.** Gaur 12:00etan *Tatxin eta Tatxan* ikuskizuna, Zerkau-sian, eta Poxpolo eta konpainia-ren emanaldia Leidorren 16:30ean eta 19:00etan.
- **Autobusak.** Urtarrilaren 7an

Bilbon, euskal preso-erakunde-
deen alde egingo duten mani-
festaziora joateko autobusak
antolatu dituzte. Berastegin,
Berrobiko eta Elduaingo herrie-
kin batera antolatu dute, eta
izena emateko epea hilaren
30an amaituko da. Urepele
elkartean, udaletxean eta udal
taldekoei esanda eman daiteke
izena. Tolosa eta Ibarra ohiko
lekuetan eman behar da izena.
Eta Leaburu eta Gaztelutik ate-
rako den autobusean izena
emateko, Leaburukoek 616 84
97 22 telefono zenbakira deitu
behar dute, eta Gaztelun, ohiko
lekura jo behar da.

KIROLAK

- **Alegia.** Gabonetako Pilota Topaketako partidak gaur, 16:00etan. Alegiaz gain, Amez-keta, Altzo eta Ikaztegiaren ere izango dira partidak.

Agurrak

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

urtebetetzak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

●●● agurrak

Programazioa

28 KANALA

- **12:00.** Altxor jokoa.
- **13:00.** On ein!
- **13:30.** Tolosaldean Gaur.
- **14:00.** Kafe t'ardi Hernialde.
- **14:30.** Halterofilia Txapelketa.
- **15:00.** Ikusmira.
- **15:30.** Tolosaldean Gaur.
- **16:00.** Walker Berastegi.
- **16:30.** Lesakako feria.
- **17:00.** Estetika.
- **17:30.** Tolosaldean Gaur.
- **18:00.** Bizitegia.
- **18:30.** Musti.
- **19:00.** 28 klip.
- **19:30.** Tolosaldean Gaur.
- **20:00.** Klipak.

TXOLARRE IRRATIA

(107,6 edo www.txolarre.org)

- **11:00-12:00.** Tolosaldeko Ahotza albistegia: Laskorain ikastolako Merkatu Txikiaren ariko dira Koldo Jauregiarekin.
- **12:00-13:00.** Tolosaldeko Ahotza magazina: besteak beste, Zortziko Aldrebesa bertsolaritzari eskainitako asteroko tartea izango dute.
- **13:00.** Lehiaketa eta disko eskainiak.
- **13:30.** Info 7ko albistegia.
- **14:00.** Tolosaldeko Ahotza albistegia.
- **16:00.** Gonenin Ero Bero.
- **17:00.** Kabitik plazara saioa.
- **18:00-20:00.** Tolosaldeko Ahotza magazina eta albistegia (errep.).
- **20:00.** Info 7ko albistegia.
- **21:00.** Adi.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. Telefonoa: 943 65 46 10.
- **Leitza.** Plaza, M.T.

Elbarren, 36.
Telefonoa: 112.

HITZAk ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



**Merkataritzak
& bizia
ematen du**

Tolosa&Co

Eskerrik asko beste urtebetez
guganako konfiantza erakusteagatik.

2012an ere gogoz ariko gara
Euskal Herriko bazter guztietako ekoizleen
produktuak ezagutarazten.

**Urte
berri
on!**

[www.euskalherriko
PLaza.com](http://www.euskalherrikoPLaza.com)

